

Mobilizazioak irekitzen du
desberdintasunaren eta pobreziaren
kontrako borrokaren bidea

“Soberan inor ez”

2018ko MAIATZAREN LEHENA

Adolfo Muñoz, *Txiki*
BILBO



ELarentzat Maiatzaren Lehena ez da aurreko urteetakoa bezalakoa. Gauza batzuk ez dira aldatzen, baina besteak bai, eta hauek, aldatzen direnek, ilusioa ematen digute gizarte justuago baten alde borrokatzen garenoi. Mobilizazio sozial eta sindikalaz ari gara.

Derrigorrezkoa da, ere, aipatzea borroka armatua bukatu eta zazpi urte igarota, hurrengo Maiatzaren Lehena ETarik gabe ospatuko dela. Gure jendea oroitu nahi dugu, hilketa bidegabeen biktima izan zirenak. Guk nahi dugun etorkizunean gorrotorik gabe biolentzia guztiak izan behar dira gogoan, giza-eskubideen urraketa guztiak. Etorkizun horretan biktimei aitortza eta erreparazioa zor zaie, eta behingoz amaitu behar da presoek pairatzen duten espetxe-politika ankerra. ELA ez da sartuko errelatoen borrokan, iragana koartada erabili nahi dutenen modura, hauek gure herriaren etorkizun politikoa bahituta mantendu nahi baitute. ELAk ohartarazi nahi du PPK eta Urkullu Lehendakariak gaur ez luketela sinatuko 1988an Ajuria-eneko Itunaren antzekorik.

ELAk betidanik esan izan du ETarik gabe hobeto egongo ginela borondate onenaz gure ahalmen eta militantzia bete-betean borroka nazional eta sozialean baliatzeko, ditugun indarrak konfrontazio zibil eta demokratikoan erabiltzeko.

1.- ZER ARI DA ALDATZEN?

ELAk nabarmendu egin nahi ditu hiru kontu garrantzitsu: Martxoaren 8a, pentsionisten mobilizazioak eta lan munduan egiten ari garen borroka. ELA borroka horietan guztietan dago sartuta.

Zer ari da gertatzen? Gure ustez, krisia gehien sufritu duen jendea konturatzen ari da hazkundera iruzur hutsa dela; gobernuak eta patronalek esaten dute *"lehenengo kontua haztea da eta gero, ekonomia hazten denean, egingo da banaketa"*; bada, hori gezurra da. Honez gero hiru urte dira ekonomia hazten ari dela, baina aberastasuna ez da modu justuagoan banatzen. Aitzitik, desberdintasun sozialak areagotzen ari dira, erreformengatik eta krisian egin diren doikuntza estrukturalengatik. Horretarako egin baitziren.

ELarentzat pozgarria da jendea mobilizatzea. Botere ekonomikoak eta honen zerbitzura dagoen botere politikoak ez daukate dena kontrolpean. Jendea eta jendearen organizazioak makurrarazi nahi dituzte. Beldurra hedatzeko egin dute lana, etsipena nagusi izan dadin eta onar dezagun beste politikarik ez dela posible.

Harro esaten dugu sindikalismo borrokalaria bizirik dagoela; oso bizirik. Eta mobilizazio sozial eta sindikala albiste oso ona da, ospatu beharrekoa. Jendarte antolatua ez dago lur jota, eta langile-klasea ere ez.

Ez gaitu etsiak hartuko. Ez diogu borrokari uko egingo. Borroka aurrera doa; ez da aldaketarik izango mobilizaziorik gabe.

a.- Martxoaren 8a. Egun hartan esperantzarik baikorrenak ere gainditu ziren. Egun hartan egiaztatu genuen lehenago ere sindikatuan bertan ikusten ari ginena: emakumeek aurpegia ematen dute, eskubideak baliatzen dituzte beren arazoak ikusaraztea erabaki dutelako.

Zer aipatuko dugu Martxoaren 8ari buruz? Ezer ez da berdina izango, egun horretan jorratutako gaiak lan errealeko eduki bihurtu baititugu:

- Lan guztien aitortza, ez soilik soldatapeko enpleguarena.
- Sistema aldatzea, zeinaren oinarria den emakumeek pairatzen duten desberdintasun estrukturala.
- Erakundeei galdatzea -hipokrisiarik gabe- aktibo izan daitezen. Erakundek berdintasun formala aldarrikatzen dute, baina euren politikak genero desberdintasuna areagotu egiten dute.
- Emakumeak hiltzen eta erasotzen ari den bortizkeria matxista salatu. Bortizkeria hau da genero desberdintasun estrukturalaren adierazpenik gogorrena. Arazo politiko oso larria da.
- Esatea, adibidez, gizon eta emakumeen arteko soldata desberdintasuna ez dela konponduko mobilizazio sozial eta sindikalik ez badago. Horretarako ELAk berriro dio beharrezkoa dela antolakuntzari, edukiei eta borrokari lehentasuna ematen dien eredu sindikala.

Aldarrikapen horiek denek, noski, ELA inplikatzten dute; antolakundetik kanpora eta barnera begira. Sindikalismoak asko zor dio mugimendu feministari.

b.- Pentsionisten mobilizazioak. Erreforma ezarri zirenean esan genuen zer gertatuko zen, baita hala gertatu ere. ELAk gogoratu nahi du euskal gehiengo sindikalak zer nolako erantzuna eman zien bi

erreformei, greba orokor bana. Lehena izan zen egun berean CCOO eta UGTk Zapaterorekin eta patronalarekin adostu zuten erretiratzeko adina 67 urteraino atzeratuko zela.

Egunotan manifestazioetan parte hartzen ari diren pentsiodunengandik hainbat mezu entzun dugu, eta interesgarriena izan da belaunaldien arteko klase elkertasunaren aldarrikapena. Jubilatu batzuk uste dute beren borroka beste borroka batzuren osagarri dela, esaterako sindikalarena. Hauen kezka ez da beren pentsioan amaitzen... izan ere, kezkatuta baitaude nolako gizartea ari den eraikitzen; beren seme-alaba eta bilobek zer baldintza negargarriak jasan behar dituzten lanean hasten direnean.

ELAk bezala haiek ere ondorio bat atera dute: eraso neoliberalak guztion aurkako erasoak da: pentsiodunak, langileak, emakumeak, gizarte-prestazioak jasotzen dituztenak... Hots, hitz gutxitan, guztioi eragiten digun borroka bat dela.

c.- Borroka sindikalak. Soilik indar sindikala badago ematen du amore. Azken urtean izan diren borrokek bi ezaugarri nagusi dituzte: Lehena, erasora goazela eta grebak irabazten ari garela. Eta bigarrena, patronalak, publiko nahiz pribatua dela ere, soilik amore ematen duela indar sindikala badago.

Gatazka ugari izan dugu: Sektore mailan, Bizkaiko Zahar-etxeak, Gipuzkoako errepideak, Bizkaiko etxez-etxe laguntza, Arabako interbentzio soziala, Arabako kirol-lokal eta -zelaia, Nafarroako kirol kudeaketa, EAEnko irakaskuntza publiko eta itunpekoa... Eta enpresetan: Bilboko Arte Ederren Museoa, Eulen Euskalduna Jauregia, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Tolosaldea Bus, Alfa Precisión, Erandioko kiroldegia, Bilboko TAO, Fundiciones Ur Artea (immigranteen diskriminazioa), H&M Bizkaia, Productos Tubulares...

ELAk erabaki zuen aurre egingo ziela erreformei eta negoziazio kolektiboan lehentasuna emango ziela edukiei (soldatak, prekaritatea, lan egonkortasuna, erreformaren aurkako klausulak...). Helburu horiek lortzeko eremuak irekitzen saiatu izan gara, non, indar-erlazioari esker, patronalak ezartzen duen blokeoa hausteko moduan izango garen. Eta lortzen ari gara.

ELAk bere ekintza sindikala ez du mugatuko gobernuak eta patronalak nahiko luketen esparrura. Lan-baldintza duinak nahi ditugu, eta badakigu horiek lortzeko jendea antolatu eta borrokatzea ezinbestekoa dela.

ELAk zorionak opa dizkie borrokatzen direnei, eta nabarmentzen du emakumeek borroka hauetan parte hartze handia dutela. Bizkaiko zahar-etxeetako gatazka aipatu beharrekoa da, berak bildu baititu ELA zer den ulertzeko osagai ugari. Estatuko eta Europako hainbat lekutatik eskatzen digute joateko azaltzera gure langile hauek nola lortu duten garaipena. Borroka sindikal eta feminista eredu garria izan zen, zaintza lanak duintzea baitzen xedea. Izugarritzko balioa eman behar diogu egin zutenari. Emakumeok erreferente bat dira eta ELA ere bai, sektore feminizatuetan egiten ari garen lanarengatik. Beste leku batzutan honelako borrokarik ez dago.

Zerk bereizten du gure eredu sindikala? ELAk hartutako erabakia, alegia, borroka horien mesedetan erabiliko dituela bere esku dituen bitarteko eta lantalde guztiak. Erresistentzia-Kutxa, afiliatu guztien elkertasunaren emaitza, gure sindikatuaren subiranaren adierazgarri da. Halakorik ez duten sindikatuak derrigor jokatu behar dute patronalaren eta gobernuaren gustoko zelaian: bake sozialaren zelaian, bitartean langileei eta gizarteari miseria inposatzen zaielarik. Hau ulertzen ez bada ez dira sindikatuaren arteko desadostasunak ulertuko. Grebak ezinbestekoak dira prekaritateari aurre egiteko.

2.- ZER EZ DA ALDATU: PPK, EAJk eta Cs elkar hartuta erabakitzen dituzte politika neoliberalak.

Ez dituzte politikak aldatu nahi, hauek pobrezia, bazterkeria eta desberdintasuna areagotzen duten arren. EAJren eta PPren lehentasuna politika neoliberalen *egonkortasuna* da -fetitxe gisa erabiltzen duten hitza-, haietan bat baitatoz.

PP, EAJ eta PSE-EE bat datoz politika neoliberaletan. Eta Ciudadanos tartean bada, baita Ciudadanos ere. Bost axola Estatua arlo guztietan inboluzio betean egotea. "Egonkortasuna" delako horri lehentasuna ematen diote elkarri babesa emanez; horrela bakoitzak bere ardurapean dagoen eremuan egiten ditu murrizketa eta ajustearak. Horretarako PPK EAJ babesten du, eta EAJk PP. **Egonkortasuna ematen diote elkarri politika horietan ados daudelako.**

Espainiar estatuan demokrazia eta giza-eskubideak arriskuan daude. Espainia Europako herrialderik erreagionarioenen pare jarri da (Polonia eta Hungariarekin, zeintzuk eskuin muturreko gobernuak dituzten)

giza-eskubide eta askatasun zibilei dagokienez. PPK bere agintean proiektu kontserbadorea ezarri du, eta orain Ciudadanosekin lehian ari denez, beste koska bat estutzen ari da.

Aldirietako bi trenen kudeaketa, AHTrako dirua (akordiorik gabe ere etorriko dena), espetxeen balizko transferentzia (haatik, ez espetxe-politikarena)... ezerk ez du justifikatzen oinarrizko eskubide eta askatasunei erasoka ari den ien gobernu autoritario bati emandako babesak. Rajoyk esan zuen Sevillako bere batzarrean: *"Orain badakite zer gertatuko den berriz ere saiatzen badira"*. 155. artikulua indarrean dago, behin-behinean etengo bada ere Katalunian gobernuak eratzeko. 155a indarrean dago PPK, PSOE eta Ciudadanosek erabaki dutelako, espainiar nazionalismoaren izenean, demokrazia blokeatzea.

PPri babesik ez. Estatuarekiko negoziazio eredu honetan Estatuak nahi duena egiten du, nahi duenean. Inputazioak asmatzen dira errugabeak espetxeratzeko. Hor dugu Altsasuko bidegabekeria edota Kataluniako buru independisten ehiza. Demokraziaren egin du lider politiko eta sozialak beren ideien defentsagatik espetxeratzeko dituztenean. Demokraziarik ez dago arazo politikoei artilleriaz erantzuten zaienean, gobernuaren menpeko botere judizialaren artilleriaz.

Ezin zaio PPri babesik eman; hurrengo urratsa fronte demokratiko bat osatzea izango da. Premiazkoa da posizio autoritarioei aurre egitea, lehenbailehen. Hala egiten ez badute izango da lehentasuna politika neoliberalak direlako. **Politika neoliberalaren oinarriak:**

a.- **"Gastu-araua"** (defizit mugarekin eta zorra ordaintzeko lehentasunarekin batera) baliatzen da gizarte-gastuaren hazkundea galarazteko. Ogasunak diru gehiago ari dira biltzen, baina EAJk eta PPK adostutako zorritzarreko "gastu-arau" horren ondorioz eragotzi egiten dute gastua sail sozialetan gehitzea. Zergatan diru gehiago bilduz gero, zorra amortizatzeko izango da. Euskal administrazioek dute zorrik txikiena. Hori da eskuineko politika. Gainera, politika hori antolatu den moduan edozein dela ere agintzen duen alderdi politikoa funtsean gauza bera egitera behartuta egongo da.

b.- **Zerga-politikak**. Presio fiskalean Danimarkarekiko %50eko ko aldea daukagu, hau da, urtean 13.682 milioi euro (10.520 EAEn eta 3.162 Nafarroan) gutxiago biltzen da hemen. Zerga kontuan europar herrialde bat gara ala errepublika bananeroa? Erantzuna argia da: Egundoko tarteak dago bestelako politikak egiteko. Badago, baina ez dute baliatu nahi Espainian, EAEn eta Nafarroan, izan ere, zerga-politika patronalaren, errenta altuen eta kapitalen mesedetan egiten baitute.

Gogoratu beharra dago nondik datorren eztabaida EAEko Sozietateen Zergaren inguruan. Ogasun sailburuak esan zuen enpresen errentek ekarpen handiagoa egin behar zutela. Bada, erreformaren opariari esker 200 milioi euro gutxiago ordainduko dute. Zenbat da hori? Esaterako, DSBEn bideratzen den diruaren erdia.

Euskal ogasunek erabaki dMute zergetan Madrilgo erkidegoarekin lehiatuko direla, hots, estatu guztian neoliberalen txapeldun direnekin. Espainiak eta Hego Euskal Herriak ez daukate gizarte-gastu handiegirik; benetako arazoa zergatan biltzen den kopuru urria da. Zor publikoa gehienbat zerga-politika injustu honetatik dator.

c.- **Pentsioen murrizketak**. Ezinezkoa da pentsio duinak ordaintzea enpresen kotizazioak murriztu, langileen soldatak jaitsi eta erabakitzen bada ez direla zergekin finantzatu.

Esaten dute pentsio-sistema publikoa ezin dela bere horretan mantendu. Baina, zer da benetan mantendu ezin dena pentsioetan? IBEX-35eko kontseilari eta zuzendarien pentsio-funts pribilegiatuak. Lotsagarria da: BBVAren presidentek 80 milioi euro jasoko ditu; Santanderreko Ana Botinek, berriz, 50, eta urtero 2,7 milioi gehitzen zaizkio kopuru horri... Bi kasu besterik ez dira; beste hainbat daude. Benetan lotsagabeak dira.

d.- **Lan kontratuak**. Confedebako ordezkariak esan du 2020rako *"enplegu bete"* izango dugula. Baina ez dute esan zein den euren erdua, AEBetako: langabezia tasa txikia -unean uneko egoeraren baitan- baina desberdintasun sozial handiagoa. Enpleguaren ezaugarri nagusia, kontratu kaskarrak.

ELAk salatu egin ditu enpresek zer nolako estrategiak erabiltzen dituzten soldatak jaisteko: azpikontratak, zerbitzu-enpresak, *outsourcing*... Estrategia hauek lan-baldintzak hondatzen dituzte, eta beste arazoei gehitzen zaizkie: aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak, langileen lagapen ilegala, sasi-autonomoak... Honek guztiak eraginik larriena emakumeengan du.

Kontratatzeko formula horiek nonahi erabiltzen dira, arlo publikoan zein pribatuan, baina baita Mondragon taldean ere. Guztiek arma berberak nahi dizute. Beste datu bat: Estatuan "mugagabe" izeneko kontratuen %40 ez da urtebetera iristen.

e.- **Soldaten jaitsiera.** Langileen miseria hedatzen dutenak kexu omen dira soldatak jaisten direlako. Hipokrita hutsak dira, hain zuzen horretarako babestu baitzituzten lan erreformak. Halakoa da Hego Euskal Herrian pairatzen dugun eredu espainiarra: soldatak jaitsiz lehiatzea. Espainiar "*miraria*"ren gakoa da enpresek beren esanetara dituztela gobernuak.

Soldatak jaitsiarazteko estrategia bat da **lan-hitzarmenen estatalizazioa**. Estatu mailako hitzarmen kaskarrak; txarrak dira, baina gainera ez digute uzten negoziatzen. Badakigu estrategia honi ematen ari garen irtenbideak ez direla hain sendoak. Izan ere, Madrildik CCOO, UGT eta patronalak (Confesbask eta CEN ere bere kide direlarik) eraginik gabe uzten dute Hego Euskal Herrian negoziazio kolektiborako eskubidea. ELA, Lehendakariarengana eta EAJrengana jo du (jeltzaleen abstentzioari esker atera zen aurrera Zapateroren erreforma, estatalizazioari atea ireki ziona): euskal langile-klasearen bizi-kalitatea hemen hitzarmenak negoziatzeko eskubidearekin lotuta dago, eta ezin da autogobernuaz hitz egin eskubide hori aitortzen ez bada. Halaber, askatasun sindikalik ere ez dago bere oinarrietako bat, negoziazio kolektiboa, eragozten bada. Hau esaten diogu EAJri eta Lehendakariari (honek ez gintuen hartu gaia aztertzeko). Legea aldatu egin behar da euskal gehiengo sindikal eta patronalek erabaki ahal dezaten non eta zer negoziatu.

f.- **CCOO eta UGTk alde egin dute delako "elkarrizketa sozialeko mahai"tik.** Balio duen bakarra, edozertarako, Jaurilaritzaren eta patronalaren arteko alde biko harremana da: lan erreformak, zerga arlokoak... dena aurrez ugazabekin hitzartzen da.

Gure iritziz, botere sindikala eraikiko bada, eta hori behar-beharrezkoa da, foro horietatik aparte izango da, horrelakoen xedea baita politika antisozialak aplikatzen diren bitartean sindikatuak entretentzea. ELA salatu behar du gobernuen barnean, baita Gasteizkoan eta Iruñekoan ere, pertsona jakin batzuk patronalaren interesen ordezkari direla.

g.- **Politikaren orde, propaganda.** Eusko Jaurilaritza oso iaioa da propaganda politikoa erabiltzen. Edukirik ez dagoenean, publizitatea. Hedabide publikoa izanik, EITB propaganda horren osagai estrukturala da. Erakundearen zuzendaritza da horren arduradun, eta alderdi politikoak, hori ontzat ematearena.

Aipatu beharrekoa da EAJ eta PP k 2018ko aurrekontuei buruz lortu duten akordioa. Akordioak askoz azalpen gehiago eskatzen du. Orain arte esan izan dute "gastu-arauak" gizarte-gastua gehitzea eragozten zuela; arau hori PPk, EAJk eta Ciudadanosek erabaki zuten, eta administrazio guztietako aurrekontu-politika baldintzatzen du. Baina orain posible da, edota ezkutatu egin digute araua betetzeko murrizketak zertan egingo dituzten? Hau erabakigarria da akordioaren balorazio orokorra egin ahal izateko, eta oraingoz testurik ez dute ezagutzera eman.

Gainera, akordioak atzeratu egin du Iraunkortasun Faktorea indarrean sartzea, eta ez ditu pentsio txikien inguruko eskari zilegiak asetzen.

ELAren ustez oso tristea da trikimailuak pilatuz politika egiteko era hau. "Fake News" eguneroko politikan. Akordioa iragarri duten egun berean esaten ari ziren hedabideetan "PP rekin ez dago zertaz hitz egin edo negoziatu 155a eteten ez den artean". Benetako arrazoia da oraindik ere bat datozela: doikuntza politikak aplikatzeko "egonkortasuna" eskainiko diote elkarri.

3.- PROPOSAMEN POLITIKO ALTERNATIBOA GALDATZEN DUGU

Eskuina eroso ari da agintzen, baina ez soilik propagandak bere eragina duelako. Hori zati bat besterik ez da. Bestea, ezker politikoan borondatea behar dela alternatibak proposatzeko, oposizio lana egiteko eta konpromisozko harreman dialektiko bat lantzeko mugimendu sindikal eta sozialarekiko, aldaketak eskatuz kaleratzen den jendearekiko.

Politika hauek denak eskuin politiko eta ekonomikoak adosten dituzte eta, agintera iristen denean, ezkerrek ere aplikatu egiten ditu. ELA nahiko luke ezker politikoak garrantzia ematea gizarte ereduari. Gai sozialak garrantzia du; jendea erakartzen du. Ezker politiko eta soziala sendotu egin behar da, eta gizarte eredu

nahiz politika sozialetan arreta jarri. Nola? Gure ustez, neoliberalismoari oposizioa eginez eta alternatibak proposatuz.

Gai sozialak axola digu justizia eta solidaritatea ELarentzat lehentasuna direlako, eta ezinbesteko jotzen dugulako gure herri burujabe proiekturako.

Eskuinak dirua dauka, eta bere zerbitzura dauden hedabideak. Badaki boterea sortzen. Horretxeri egin behar diogu aurre.

4.- NAHASKETA LEHERGARRIA, KOHESIO SOZIALA BIRRINTZEN DUENA

Arrazismoa eta xenofobia organizazio ustelek baliatzen dituzte; egin dituzten zikinkeriak ezkutatzekeo immigrazioaren aurkako gerran sartu dira.

Aurtengo Maiatzaren Lehena dela eta ELAk ozen salatu nahi ditu xenofobia, arrazismoa eta faxismoa. Politika zitalen konbinazioak birrindu egiten du gizartearen kohesioa. Gainera, politika horiek klase gisa indartzen gaituen nortasun kolektiboa ere suntsitzen dute. Kapitalismoak kezka bakarra du, bere irabazia puztea. Beste guztiak bost axola dio; baliatu egiten da agintean dagoen klase politikoaz -otzana eta kasu askotan erdipurdikoa-, zeina lanean daukan helburu hori lortzeko.

Europar koktel lehergarria osatzen dute doikuntza politikak, honek eragiten duen pobrezia areagotuak eta milioika pertsonaren migrazioak, pobreziatik eta heriotzetik ihesi doazelarik (gerra edota gosea dela eta).

Errealitate honen aurrean hobekien kokatu dena eskuin muturreko indarrak dira, eta agindu ala ez, Europako politikak xenofobiaz tindatzea lortzen du. Eskuin klasikoaren indar politikoek eskuin muturrekoen programak kopiatzen dituzte, eta sozialdemokrazia politika neoliberalen arrastotik atera ezinik dabil.

Politika xenofobo hauek ondorio oso arriskutsuak dituzte:

1. Lehenik, doikuntza politika bertokoei zein migranteei aplikatzen dietenen ardura zuritzen dute. Alabaina, soldata jaitsieraren, murrizte sozialen, kapitalari egindako opari fiskalen errua ez dute immigranteei. Gezur gehiagorik ez!
2. Bigarrenik, argudio xenofoboak botatzen dira gizarte-prestazioak murrizteko. DSBEan egiten diren mozketen oinarrian ikusmolde zeharo xenofoboa dago. Ez da aitortzen, baina hor dago. Begira, bestela, gizarte-prestazioak nola kriminalizatzen diren. Zergatik nabarmentzen da DSBEan iruzur egiten dutenen nazionalitatea, kopuruak oso txikiak izanik? Zergatik babesten dira, aldiz, pekatu askoz handiagoa duten iruzurgile fiskalak?
3. Hirugarrenik, gu zatikatzea, erantzun soziala ahultzea. Historiak dio eskuin muturrak gai hauen inguruan polarizatzea lortzen duenean jenderik xeheenaren artean izaten duela babesa; gure jendearengan. Bai, gaur gure gizartean kutsu xenofoboa duten adierazpenak agertzen ari dira; baita langile-klasearen baitan ere; baita sindikatuetan ere.

Horrek kezka handia eragiten dio ELAri. Pobreen arteko gerra eskuin muturrak egiten du, baina eskuin klasikoak ametitu ez ezik xaxatu egiten du. Sindikatuok borrokatu egin behar ditugu xenofobia, arrazismoa eta faxismoa. Eta ezker politikoak hau aintzat hartu behar du, erradikaltasun demokratikotik. Izan ere, drama da Europar proposamen faxistak finkatzen ari direla.

Sirian ehunka milaka hildako eragin ditu gerrak... Milaka pertsona itotzen dira itsasoan; Europara iristea lortuz gero, errefuxiatu-eremuetan ixten dituzte, edo paperik gabe dabilta alde batera eta bestera, emakume migranteei sexu-xantaia eta -bortizkeria pairatzen dute... Europar Batasuna beste aldera begira dago, migrazio geldiezina delarik. Bitartean, eskuin muturreko alderdiak agintera iristen dira: Hungaria, Polonia... EB ezigauza da politika xenofoboaren gehiegikeriak geldiarazteko. Eta hori zuzendu ezean, areagotu egiten da.

Aurtengo Maiatzaren Lehenez ELAk argi esan nahi du: *"Soberan inor ez"*. Migrante eta errefuxiatuak, paperekin zein paperik gabeak, erdi-esklabo gisa bizi diren etxe-langileak, langabeak... horietako asko sistemaren bazterretan, prekaritate egoera lazarrian eta sistemak ikusezin bihurtu nahi dituela.

Lehen mezua euskal langile-klaseari zuzentzen diogu; gure organizazioari. Inor, erakunde bat ere, ez dago berez salbu populismo xenofoboan erortzetik. Eta bigarrena, euskal gizarteari. Europako hainbat herrialdetan eskuin muturreko populismoa langile-klasean hedatuta dago. Alemanian badira eskuin muturreko aukera

sindikalak. Gure etsaiak ez dira immigranteak; gure etsaiak beste batzuk dira, armak salduz negozioa egiten dutenak, murrizte politikak ezartzen dituztenak, hemen nahiz beste kontinenteetan jaio direnei.

Ez dugu pobreen arteko gerrarik behar. Eskubide guztiak hemen bizi garen pertsona guztiontzat galdatzen ditugu.

Duela 50 urte **Martin Luther King** hil zuten Memphisen; hiri horretara joan zen garbitasuneko langile batzuri babesa ematera joan zelako, beren eskubideen aldeko borrokan. Bere ideien alde borrokatu zen; amerikar gizartea irauli zuen; kontzientziak astindu zituen gerraren, pobreziaren eta arrazismoaren aurka. Har dezagun aintzat horrelako borroken mamia eta ez dezagun onartu xenofobiak eta arrazismoak gu suntsitzerik. Integratu ditzagun immigranteak; defenditu ditzagun; egin diezaiozun aurre gorrotoari. AEBetan afroamerikarren eskubideak borrokari esker aitortu zituzten; lege bidegabeen aurkako borrokari esker. Kingek bortizkeriarik gabeko desobedientzia hautatu zuen eta benetako iraultzaile bat izan zen. Sinestuta zegoen berak gidatzen zituen moduko mobilizazio indartsurik gabe eskubide zibilak inoiz ez zitzaizkiela aitortuko. Historian betidanik gertatu da hori. Borrokak merezi izan du.

Martin Luther Kingek esan zuen: *"Jakingo banu mundua bihar bukatuko dela, gaur zuhaitz bat landatuko nuke"*. Itxaropen mezua. ELAk txalotu eta bere egiten du Ongi Etorri Errefuxiatuak borroka; Mediterraneoan larrua jokoan jartzen dutenena, besteen bizitza salbatzeko. Borroka horiek goraipatu nahi ditugu, humanoago egiten gaituztelako.

Xenofobiari, arrazismoari eta faxismoari garaitzeko aurre egin behar zaie. Bestela, haiek aurrea hartzen digute. Gure herriko jende askok beste nonbait aterpea bilatu zuen, gerraren ondoren. Horregatik ere, errefuxiatuak gertuko sentitzen ditugu. Gobernuei galdatzen diegu amai ditzatela gerrak; utz dezatela alde batera armen trafikoa, eta jendartean integartzeko politikak gara ditzatela guztientzat, baita immigranteentzat ere.

5.- LEGEGINTZAKO HERRI EKIMENAK ONARTU EGIN BEHAR DITUZTE PARLAMENTUETAN

Legegintzako Herri Ekimen (LHE) bana eraman dugu Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetara. DSBE duinagoa eta etxebizitza egokia izateko eskubidea bermatu nahi ditugu.

Patxi Lopezek DSBE %7 murriztu zuen eta laguntza jaso ahal izateko eskakizun zorrotzagoak ezarri zituen. Urkulluk eutsi egin die murrizketei. Mozketa horiek izan ez balira gaur DSBE jasotzen dutenek 111 euro gehiago ukango lukete hilero.

DSBEa jasotzen dutenen artean %57 emakumeak dira, %23a lanean ari da baina soldata hain kaskarra duenez laguntza jasotzeko eskubidea du, eta %25 pentsiodunak dira. DSBE ez da murriztu behar; aitzitik, hobetu beharra dago.

Gerhard Schröder kantziler aleman sozialdemokratak esan zuen: *"ezinezkoa litzateke soldatak jaistea gizarte-prestazioak murriztu ezean"*. Eta horixe egin zuen. Gero *minijob* direlakoak ezarri zituen; milioika langilek soldata oso kaskarrak dituzten enpleguak dituzte; gizarte-prestazioak murriztu zitzaizkienak horrelako kontratu miserableak onartzera behartu zituzten. ELAk Eusko Jaurlaritzari egozten dio DSBEa murrizteko helburuaren atzean Schröderren helburu berbera duela: gizarte-prestazioak moztu, hartara jendea kontratu negargarriak onartzera derrigortzeko.

Schröderrek bazekien soldatak eta gizarte-prestazioak zeharo lotuta daudela. Guk ere badakigu hori: Gizarte-prestazio duinik ezin da mantendu soldatak urriak direnean, eta soldata duinik ez dago gizarte-prestazioak jaitsiaz gure jendea behartzen badute kontratu miserableak onartzera. Hori neoliberal guztiek dakite: kanpokoek nahiz gure herrikoek.

6.- EUSKO JAURLARITZAREN JOERA ANTISINDIKALA SALATZEN DUGU

Indar kontserbadoreek mundu guztian erasotzen diote sindikalismoari; Hego Euskal Herrian ere bai. ELAk dio ez dagoela demokraziarik benetako kontrabotererik gabe; sindikalismo indartsurik gabe. Ez dago demokraziarik diruaren botereari eranstean bazaio gobernuen konplizitatea eta sindikalismoa ahultzeko helburua. Kontrabotererik gabe demokrazia itxura hutsa da.

ELAk salatu behar du Eusko Jaurlaritzak jarrera erasokorra duela sindikalismo borrokalariaren aurka: Sindikalismoak ez badu ontzat ematen egotzi nahi zaion rol ezdeus eta menpekoa, edo hari erasaten zaio.

Posizio hori munduan hedatzen ari diren lidergo autoritarioen ezaugarria da. Horrelako liderrentzat beren boterea muga dezakeen oro borrokatu behar da. Horregatik izaten dituzte halako neurrigabeko erreakzioak gure aurka; patronalarekin bat datozelako: sindikalismoak traba egiten du. Productos Tubularesen, Irakaskuntzan, Bizkaiko zahar-etxeetan, Bilboko Arte Ederren Museoa... egin behar duena, aldarrikatzea, egiten duen eremu guztietan.

Duela hilabete batzuk Jaurilaritzako goi agintari batzuk PwC enpresaren ekitaldi batean izan ziren; enpresa honen arduradun batzuk euskal administrazioan kargu garrantzitsuak izan dituzte. Ekitaldi hartan sindikalismoaren aurkako adierazpenak bota ziren. Ez dago eskubiderik. Ezin da onartu hain era lotsagabea ugazaben aldera lerratzerik.

ELAk salatu behar du estrategia politiko eta ekonomiko bat ari dela garatzen politika horiei egiten zaizkien kritikak isilarazteko. Pentsamolde kritikoaren aurkako erasoak jo dute. Bai, hemen ere bai. Pentsamolde kritikoaren aurkako borroka ez baita Rajoyren monopolioa. Jaurilaritza honek harreman klientelarrak besterik ez ditu onartu nahi, baina ELAekin halakorik ez du izan, ezta izango ere.

Sindikalismoa otzana nahi dute, hipotekatua, bere hausnarketa egiteko eta interpelazio autonomoa egiteko gauza ere ez dena.

ELA harro dago hautatu duen rolaarekin; errebindikazio erreferentzia argia markatzen duelako. Horregatik zaintzen dugu zorrotz gure autonomia. Erabateko autonomia gobernu eta patronalekiko, geure gogoeta egiteko, estrategiak definitzeko, proposamenak eta ekintzak garatzeko. ELA hori baita.

Gora Euskal Herriko Langileria!

Gora Euskal Herria askatua!

Gora ELA!

2018ko Maiatzaren Lehena